

ADMINISTRAZIOA eta DIRU KONTUAK: Aurrekontuak ez direlako haurren kontuak

Elgoibarko Izarran ez da sekula dirurik egon, baina, handik edo hemendik, ia beti lortu da behar izan den dirua.

Lehen urteetan, diru iturri nagusiak bazkide kuotak eta dirua ateratzeko antolatzen ziren jarduerak ziren. Tabernak eta berbenek, adibidez, diru asko ematen zuten. Eta, gaur gezurra badirudi ere, kultur jarduerak ere dirua ematen zuten. Izan ere, jaialdi bat edo bestelako kultur jardueraren bat antolatzen zenean, herri osoak erantzuten zuen.

Aipamen berezia merezi dute bazkide-kuotek. 1966an 1.400 bazkide zituen Elkartek, eta bazkide-kuotetatik ateratzen zen dirua, benetan garrantzitsua zen. Kuotak ez ziren altuak, 25 eta 100 pezeta hilean, baina dirutza polita biltzen zen.

Eta bazkide kuoten gainean dihardugunez, kobradoreen funtzioa eta garrantzia azpimarratu nahi dugu. Izan ere, bazkide kuotak etxez etxe kobratzen ziren, eta 30 lagun inguruk jarduten zuten Elgoibarko Izarrako kuotak kobratzen. Erreziboak edo ordain-agiriak Felix Etxeberriak prestatzen zituen, eta kobradoreak 1.400 bazkideen etxetara joaten ziren kobratzera. Urte batzuetan hala jardun ostean, gero Caja de Ahorros Munizipalean helbideratu ziren bazkide-kuotak.

Udaletik diru gutxi jasotzen zen lehen urteetan. "Hasieran baimena jasotzearekin nahikoa izaten zan. Gauzak organizatzeko baimena ematen zebenian, gustura!". Gerora, jardueretan Elkartek izaten zen defizita tapatzen laguntzen zuen, eta, azkenik, 1992tik aurrera, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatuko dute Udalak eta Elkartek azken honen jarduerak finantzatzeko.

Ikastola izan zen burukomin gehien eman zuen proiektua. Hasierako urteetan oso gaizki ibili zen diru aldetik. Elkartek eskatutako lehen kredituak ere ikastolarentzat izan ziren.

Elkarteko administrazioa eramaten zutenak, normalean, emakumezkoak izaten ziren, baina gizonezkoak inguruan izaten zituzten laguntzen eta aholkuak ematen.

Hasierako urteetan azpimarratzekoa izan zen Elkarteko presidenteen funtzioa eta papera. Lan asko eta ona egin behar izan zuten.

Elkarteko bazkide kuotak etxez etxe kobratzen ziren, eta 30 lagun inguruk jarduten zuten kuotak kobratzen.